


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Lois



Bere logelan grabatutako kantu gutxi batzuekin soil-soilik, **Lois** Madrilgo eszenako proposamenen artean interesgarri, polit eta asmo handienekoetako bat bilakatu da. Haren proposamena bere C86 maiteari, 80ko urteetako cheesy musikari eta Mac DeMarcok edo Homeshakek lurrun-iragazkian pasatuko jazzari eskainitako musika da.

Debuteko *Bedroom Recordings* lanarekin, azkar batean bereganatu zuen **Loisek** The Line of Best Fit, DIY edo BBC bezalako en nazioarteko arreta mediatikoa, eta haren kantuek logelako hormen muga gainditzea lortu zuten; Erresuma Batuan Alex Calder-ekin hitz egin zuen telefonoz edo bere abestiak kasetean editatu zituen AEBetako Citrus City zigiluak eta biniloan Acquarelak.

2018an lehen lerrora itzuli zen berriro **Lois**, Londresko Stoke Newingtonen grabatu zuen *Crumb Cats* EParekin, The Proper Ornaments-eko James Hoarek eta Veronica Fallsek ekoiztuta; hor, lo-fia atzean utzi, eta soinu landuagoaren bila abiatu zen. EP berriko bost kantu berriak grabatzean, vintage teklatuak, erritmo-kutzak, gitarrak eta baxuak erabili zituzten etengabe: bere kantuetan klasikoekiko errespetua eta izaera modernoaren ausardia batera ditzakeen edozein musikaren amets gauzatua.

Loisen iritziz, bere musika 'slacker jazz' kategorian sartuko litzateke.

«Jazzaren tinbreak eta indie-an ezohikoak diren akordeak ustezko axolagabekeriarekin batera doaz, berezko jarioan nagiak ateraz eta luzatuz, melodien eta konponketen edertasuna indartuz eta bizitza egokitu zaigun garai honetan harreman pertsonal zailei buruzko hitz bikainetarako estalki ezin hobea sortuz». Muzikalia

////////////////////////////////////

Otsailak 14, ostirala

21:00

Kulturen Ataria

Igerilekuaren argi-zuloaren azpian

12€ / 10€ Az Txartelarekin

////////////////////////////////////

 loisband.bandcamp.com

 @loisband

 @Loisband

 @hello.lois

 Lois